



Txostena 2010



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Laguntzailea:



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Araba

Simone de Beauvoir Elkartetxea
San Ignacio de Loyola 8 - 3. 1 Bulegoa
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 280 745 • Faxa: 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Urkixo Zumarkalea 30, Urkixo Galeriak, 8. bulegoa
48010 Bilbao
Tel.: 944 150 300 • Faxa: 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Pasajes San Pedro Etorbidea 13 atzealde
20017 Donostia
Tel.: 943 463 526 • Faxa: 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

coordinadora@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

1.	Aurkezpena: Hasi da etapa berri baterako hausnarketa garaia	2
2.	Nortzuk gara?	4
	Misioa	4
	Baloreak	5
	Barne antolaketa	5
3.	Gure ekimenak	7
	Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea	7
	Generoa	8
	Eragin Politikoa	10
	Giza Mobilizazioa eta Kanpainak	12
	Komunikazioa	14
	Idazkaritza teknikoak:	16
	Euskadi	16
	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	17
4.	Koordinakundeko kideak	23
	Gobernu Batzordea	23
	Lan-taldeak	23
	Erakundeetan partaidetza	24
	Talde Teknikoa	25
	GGKEak	25
	Lankideak	25
5.	Kontu argiak	26

Hasi da etapa berri baterako hausnarketa garaia

2010. urtean Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen Gobernu Batzordeak erabaki du erakunde barruan hausnarketa prozesu bat hastea, aurreko plan estrategikoaren ebaluaketaren eta berriaren prestaketa-lanaren testuinguruan. Hausnarketa prozesu horren helburua da erakundearen gaur egungo egoera egokitzea gizartearen, lankidetzaren eragileen eta kide diren GGKEen eskakizunei. Hauek dira hemendik aurrera aurreikusten ditugun erronkak: giza eta ekonomia baliabideen errentagarritasuna (nabarmen jaitsi dena) eta gure indarguneak eta sektoreko aukerak ahulguneei eta mehatxuei egokitzea.

Gogoeta garaia izan bada ere, gelditu gabe jarraitu dugu lanean, Koordinakundeak programatutako jarduerak garatzen, eta oztoporik gabe bete ditugu lehendik ezarritako helburuak. Kontuan harturik zeintzuk diren gaur egungo lan ildoak (Eragin politikoa, Eraldaketa soziala eta Koordinakundearen hobetzea), hainbat helburu eta emaitza finkatu dira Plan Estrategikoan eta horiekin baloratuko dugu Koordinakundeak 2010ean garatu duen jarduera.

Eragin politikoa

Esan dezakegu etengabeko elkarrizketa mantendu dugula alderdi politikoetako ordezkariekin eta alde horretatik helburu guztiak bete ditugula, hainbat bilera egin baititugu elkarrekin. Lortu ditugu baita ere Eredu dokumentuarekiko proposamen integral, koordinatu eta koherenteak aurkezteari dagozkion helburuak, dokumentu horren hainbat kapitulu onartu ditugulako eta politikak egiteko espazioetara hedatu ditugulako. Aurrerago, dokumentu garrantzitsu honetako beste kapitulu batzuk ere osatuko ditugu. Aktiboki parte hartu dugu ordezkarrizta dugun lankidetzaren kontseiluetan. Ildo

beretik, euskal lankidetzaren publikoaren egoerari buruzko informazioa zabaldu dugu eta hiritarrei eta klase politikoari jakinarazi diegu zein neurritaraino betetzen den indarrean dagoen legeria. Era berean eragina izan dugu lankidetzaren deszentralizatuarekin lotutako Estatuko lankidetzaren politiken esparruan, politiken koherentzia landu dugu eta Koordinakunde Autonomikoaren zein Generoaren lantaldeetan parte hartu dugu. Hobe beharreko alderdi gisa aipatu behar da pobrezia aurkako toki eta foru itunak sinatu behar direla, Bizkaian ez baitugu horrelakorik lortu eta Araban eta Gipuzkoan bi hiriburuetako udaletan bakarrik izenpetu baitira, ez batzar nagusietan.

Eraldaketa soziala

Eragin politikoko eta eraldaketa sozialeko ildoaren arteko konbergentzia-puntu bezala, aliantzak sustatu behar dira beste mugimendu sozial batzuekin eta gogoeta eta eztabaidan jardun behar da adostasun elementuak bilatzeko. Helburu hori bete dugu *Eragile, sare, erakunde eta mugimendu sozialekiko harremanen agiria* onartuz eta baita ere jarduera bateratuak garatuz, esate baterako, Zero Pobrezia kanpaina. Koordinakundearen beste sare batzuetako kide da (hala nola martxoaren 8a eta azaroaren 25a plataformak, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina edo Espainiako GGKEen Koordinakundeak) eta horiek sustatutako ekimeneetan ere parte hartu dugu.

Eraldaketa sozialaren esparruan, presentzia handia izan dugu komunikabideetan, pentsatzen baitugu datozen urteetan are ahalgin handiagoa egin beharko dela arlo horretan. Beste mugimendu sozial batzuetara hurbiltzeko prozesu honetan, Koordinakundeak zuzendutako mobilizazio sozialeko ekintzak antolatuko ditugu eta hainbat eragile sozial atxiki zaizkigu, esaterako, lehenago

aipatu dugun Zero Pobrezia Kanpainan edo Donostian ospatu genuen *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldian. Horrez gain, Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluak antolatutako *8 barruti; 8 Milurteko Garapen Helburuak* jardueran eta EPA kanpainan parte hartu dugu besteak beste.

Koordinakundeak hainbat espazio eskaini ditu bere web orriaren bidez, tokiko GGKEek jarduerak artikulatu eta koordinatu ditzaten. Era berean, *Facebook* eta *Flicker* sare sozialetan eta *Solidarios/as* eta *Vida solidaria* blogetan dugun presentzia mantendu dugu, espazio berri horietan gero eta presenteago dagoen publikoarenganaino iristeko. Gainera, Koordinakundeak web orri eguneratu eta operatiboa dauka, gizaritari Koordinakundeko zein bazkide diren erakundeetako informazioa ezagutarazteko eta bide batez gardentasuna sustatzeko.

Koordinakundea hobetzea

Aurrera egin dugu Koordinakundearen iraunkortasun ekonomikoan, finantza kudeaketarako tresna berriak eskuratu ditugulako: diruzaintzaren jarraipena egiten duena, kontuen kudeaketarako protokoloa... Horiei esker azkarrago egin daiteke erakundeko ekonomiaren jarraipena, informazio eguneratua izateko erabakiak hartu behar direnean. Kuotak handitzea proposatzen duen egokitzapen ekonomikorako plan bat proposatu dugu, onartu ez dena. Datorren urtean aplikatuko baitugu gastuak murrizteko plana. Koordinakundearen barne kudeaketarako politikari dagokienean, 2010ean Genero Politikaren auto-diagnostikoa egin dugu eta guztiz amaituta egongo da 2011rako.

Kide diren erakundearen parte-hartzea bultzatzeko eta kidearen sentimendua indartzeko premien araberako egitura baten bidez, eraldaketa prozesu parte-hartzaile bat abiarazi dugu. Horrela, Koordinakundeko espazio bakoitzaren, karguen eta teknikarien funtzioak eta erantzukizunak definituko ditugu, alderdi inplikatu guztiek eta erakunde kideek argi eta garbi jakin ditzaten zeintzuk diren funtzioak eta erantzukizun horiek.

Koordinakundearentzat funtsezkoa da kide diren erakundeak bultzatzea eta indartzea, dela koordi-

nazio eta prestakuntza espazioen bidez edo dela aholkularitza profesionalizatuko zerbitzuak eskainiz. Helburu horrekin antolatu dugu *Bizkaiko tamaina txikiko GGKEen errealitate eta perspektibei* buruzko izeneko mintegia.

GGKEek eskatzen duten prestakuntzari buruzko azterlan bat egin dugu, gehien eskatzen direnak antolatu ahal izateko. Prestakuntza plan koordinatu bat egin dugu hiru lurraldeetan, kide diren GGKEen eta beste erakunde batzuen prestakuntza baliabideak aprobetxatzeko. Eskaini den prestakuntzan aipatzekoak dira generoari buruzko ikastaro espezifikokoak, komunikazio gaitasunak, desazkunderari buruzko tailerrak eta garapenerako hezkuntza estrategiak, herritarren kontzientziazteko gero eta handiagoak diren desberdintasunen inguruan (horiek sortzen dituzte murrizketa sozialetako politikak, etab.).

GGKEek Iparraren eta Hegoaren artean dauden desberdintasun estrukturalen inguruan dituzten erronkei buruzko aldizkako gogoeta eta eztabaida espazioak mantentzeko eta indartzeko, *GGKEen erronkak eta desafioak mundu globalizatuan* izeneko azterketa prozesua sustatu eta garatu dugu.

Sarrera honen hasieran esan dugunez, 2010. urtearen ezaugarri nagusia izan da Koordinakundeak bere inguruan, hau da, erakunde kideen artean izan behar lukeen paperari buruz egin duen barne gogoeta. Horrez gain, Koordinakundeak finantza eta ekonomi krisi globalaren ziklo berri hau gainditzeko behar duen ereduaz ere hausnartu dugu. Badakigu hasi dugun barne prozesua zaila izango dela, baina badakigu baita ere horren bidez adostuko ditugula Koordinakundearen baitan sartu beharreko aldaketak, horiek izango baitira nazioarteko lankidetzaren lanaren bizkarrezurra eta ardatza, mundu justu eta solidarioago bat eraikitzeko.

Ana María Arriola Palomares
Euskadiko GGKEen Koordinakundeko
Lehendakaria

2. Nortzuk gara?



Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren Garapenerako GKEen (GGKE) jarduerak ahalik eta koordinatuena, koherenteena, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2010aren amaieran 82 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurraldeetan. Urte hauetako esperientziaren ondorioz, Koordinakundearen lehentasunetako helburu batzuk adostu ditugu guztion artean:

- kide diren GGKEen arteko koordinazioa hobestea, garapenerako nazioarteko lankidetzaren areagotzeko, erakundearen arteko ekintza bateratuak gauzatzuz;
- sustatzen ari garen lankidetzaren ereduaren hausnarketarako espazio erkidea sortzea, Iparralde/Hegoaldean dauden harreman desberdinak aldatzeko;
- euskal gizartea Hegoaldeko herrialdeen errealitatearekiko sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatu;
- tolerantzia eta elkartasuna bultzatu herri eta kulturen artean;
- jendaurrean azaldu GGKEek eginiko lana.

Misioa

Koordinakundea garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek Jokabide Kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatatu bat osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero berdintasunean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmatari jarraituz. Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea, euskal erakunde publiko zein pribatuaren artean eta Koordinakundeko kide diren erakundearen artean.
- Koordinakundeko kide diren erakundearen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.
- Gure ingurunearen eraldaketa soziala bultzatzea, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparralde-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.



Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundeak topaketa, eztabaida eta go-goeta espazioak eskaintzen ditu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen da politikoki eta sozialki, aliantzak egiten ditu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen da. Horrekin batera, erakundeei laguntzen die beren lanean, dauzkaten gaitasunak indartzen ditu, beren arteko aliantzak bideratzen ditu eta kolektiboaren esku jartzten ditu kide bakoitzak dauzkan baliabi-deak, eta alderantziz.



Baloreak

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gaindituz eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Mundu osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea egin dugu *beste mundu bat posible da* leloa. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna; garapenerako lankidetzak ez da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobretuekin lan egiten da giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatuz, hezkuntza lortzeko eta herritarrek sentsibilizatzeko eta ohartarazteko badi-rela hori guztia eragozten duten hainbat mekanismo. Koordinakundeak, halaber, kide diren erakundeek zuzentzen dituzten baloreak islatu behar ditu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia

parte-hartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero berdintasuna lantzeari.

Barne antolaketa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen organo nagusia Batzorde Orokorra da. Urteko oinarritzko irizpide eta jarduera ildoak zehazteko batzen da. Bestalde, Batzorde Orokorrean hautatzen dira instantzietako ordezkari izango diren karguak.

Batzar Nagusia gutxienez urtean behin biltzen denez, Gobernu Batzarra da Koordinakundearen organo betearazlea. Koordinakundearen jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu, Batzar Nagusiak eta haren plan estrategikoak xedatutakoari jarraituz. Lurraldeko batzarrak, Koordinakundearen ordezkari-tza horretan elkartutako GGKEek osatzen dituztenak, lurralde ordezkari-tzen gobernu organoak dira.

Nortzuk gara?



Gainera, lurralde bakoitzean lantaldeak oinarri hartuta egiten da lan. Onginahi hutsez lan egiten duten hainbat GGKEtako kideek osatzen dituzte eta talde txikiak izaten dira. Gaur egun, arlo hauetan egiten dute lan:

- Generoa
- Eragin Politikoa
- Giza Mobilizazioa eta Kanpainak
- Komunikazioa

Idazkaritza teknikoak, herrialde bakoitzeko bat, Gobernu Batzarrak eta Batzar Nagusiak haien esku uzten dituzten erabakiak gauzatzeko ardura duten organoa dira. Gainera, GGKEei eta herritarrei zerbitzuak eskeintzen dizkiete. Halaber, bada Jokabide Kodearen Segimendurako Batzordea, kide diren GGKEek Kodearen segimendua bermatzen duena, kodea zabal eta ezagut dadin bultzatzen duena eta honen aplikazioaren inguruan aholkuak ematen dituena.

2001az geroztik, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearen barruan dago. 2009an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen

Pobreziaren aurkako astea
Semana contra la Pobreza

Consume menos para vivir mejor
Aztarna txikitu!

Consejo de la Juventud de Euzkadi, Oinarri Solidario, Aste, Asociación Amigos de la RASD, Paz y Solidaridad, Mankabat, Jolas eta Eros, Herriak, Aurkitu, Aldeak, Madrugamendi Astea, Gaitze en espainia, Comités de ONG de Euzkadi, STEE-ERAS, ESK, Euzkalerria Estatuak, Aste, Tolerancia en Euzkadi, Solidaridad Internacional, Comités de Justicia y Justicia, Sotari Pago Hezea.

Urriak 13 Octubre	ESK	19:30
Mahaingurua: Aproximación a la situación de pobreza en Vitoria-Gasteiz y respuestas institucionales desde la Red de Garantía de Ingresos y las Ayudas Sociales		
Urriak 14 Octubre	Hikaatoneo	19:00
Conferencia: Añueta gaitze (gaitze) y Spanish dream (vivir en)		
Presentación de Gaitze en transición		
Urriak 15 Octubre	Sala Luis de Ajoura	19:00
Hitza: Decrecimiento, hacia una nueva forma de vivir y consumir		
Luz Garzakar de Ecologistas en Acción		
Urriak 16 Octubre	Plaza de la Provincia	11:00-14:00
Exposiciones, talleres, juegos solidarios, trivial contra la pobreza, taller de chapas y pintura, mesas informativas de decrecimiento, comercio justo y solidario, pobreza cero, lectura de manifiesto...		
13:00 Bizi-marra, conociendo nuestra propia pobreza		
18:00 Celebración Interreligiosa Colegio Presentación de María		

Koordinakundeari eman zion Ignacio Ellacuria saria, garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona izan zen hau. •

3. Gure ekimenak



Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordean lanean jardun dugu 2010ean zehar Kodearen hedapena eta ezagutza sustatzeko, erakundeen artean honen betepena bultzatzeko, kide diren GGKEek betetzen dutela egiaztatzeko, Kodea interpretatzeko eta erakundeei bere aplikazioaren inguruan aholkatzeko.

Batzordearen zeregin nagusia izan da Euskadiko GGKEen Koordinakundearen sartzeko eskatu duten erakundearen dokumentazioa gainbegiratzea, erakunde horiek baloratzeko txosten bat egitea eta hori Gobernu Batzordeari eta Batzar Orokorrari igortzea. 2010ean, Batzorde honek gomendatuta, Koordinakundearen sartu dira besteak beste Mugarik Gabeko Hezkuntza eta Mugarik Gabeko Ekonomilariak (otsaileko Batzar Orokorrean) eta baita ere Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu erakundea (urriko Batzarrean).

Bilera bat izan dugu Anesvad elkartearekin bere egoeraren berri jakiteko eta Koordinakundearen sartzeko egin duen eskaera aztertzeko. Halaber, Derandain Fundazioarekin ere batzartu gara. Batzordearen gomendioak direla medio, aipatu bi erakundeek beren egungo

egoera, helburuak eta egitura berrikusi beharko dituzte eta, beraz, atzeratu egin dira Koordinakundearen sartzeko egin dituzten eskaerak.

Azken hilabeteotan, eta Batzordeko kideen osaera aldatu egin denez, Batzordeak nagusiki GGKEen sarrera eskaerak gainbegiratzen jardun du. •





Generoa

2010eko urriko Batzar Orokorrean Koordinakundearen genero diagnostikoa onartu zen, zeina fase desberdinetan garatu baita jakiteko zein puntutan dagoen gure erakundea genero ekitateari dagokionean.

Lehen fasea 2009an egin zen eta etapa hartan Koordinakundeko espazio desberdinetako hainbat lagunek genero diagnostiko bat egin zuten, Genero Taldeak berak diseinatutako metodologia bati jarraituz. 2010ean martxan jarritako bigarren fase honetan aipatu auto-diagnostikoa osatu dugu taldean; horretarako, batik bat analisi dokumentala egin dugu eta hainbat dinamika ere bai talde zehatzekin. Gero, hirugarren etapan, diagnostikoa aurkeztu dugu hiru lurralde batzarretan eta Gobernu Batzordean. Dokumentu honetatik eratorritako ondorioekin, Koordinakundearen Genero Politika egin hasi gara 2010ean. Genero Taldean auto-diagnostikoa osatzen ari ginen bitartean, beti argi izan dugu zein den azken helburua: barne Genero Politika bat onartzea.

Politika hori egiteko prozesu espezifikoa 2010ean hasi da eta horretarako bilera bat egin dugu Natalia Navarro, genero, garapen eta antolakuntzarako kultura adituarekin.

Bestalde, Genero Taldeak lehenik ere kide zen sareetan parte hartzen jarraitu du, hala nola Bizkaiko Koordinakunde Feministan, bai martxoaren 8an eta bai azaroaren 25ean. Estatuko eta Autonomietako Genero Taldeen Sarean parte hartzen jarraitu dugu. Sare bietan dugun presentzia mantentzeaz gain, harreman estua izan dugu Maskulinitate Berrien, Generoaren eta Lankidetzaren Talde sortu berriarekin.



Urtean zehar, Genero Taldean jarduera koordinatuak burutu ditugu Koordinakundeko gainerako taldeekin. Giza Mobilizazio eta Kanpainen arloari dagokionez, aipatzekoa da *GGKEen erronkak eta desafioak mundu globalizatuan* prozesuan parte hartu dugula eta *Eragile, sare, erakunde eta mugimendu sozialekiko harremanen* inguruan egindako eredu dokumentua idazten lagundu dugula. Genero berdintasunarekin zerikusia duten eragin politikoko gaietan, hainbat ekarpen egin dizkiogu Eusko Jaurlaritzaren 2010eko urteko planari eta krisi garaian lankidetzaren defendatzeko argudioak eta posizionamenduak prestatzen lagundu dugu. Komunikazioari dagokionean, *Hegoaldeko Ikuspegiak* Komunikazio Solidarioa Lehiaketa babestu dugu berriro ere.

Prestakuntzaren atalean, ahalegin handia egin dugu ikastaroak antolatzeko eta beste mintegi batzuetan parte hartzeko. Alde batetik, GGKEek genero arloan eskatzen zizkiguten prestakuntza ikastaroak antolatu ditugu, hala nola Alicia Rodríguezek Gipuzkoan eta Araban eskainitako *Generoa eta garapenerako hezkuntza*. Lehen kasuan 2009an antolatu zen eta 2010ean eskaini; Arabako edizioa, aldiz, 2010ean planifikatu zen eta 2011aren hasieran eman zen. Bestalde, hizlari gisa parte hartu dugu beste erakunde

eta instituzio batzuek martxan jarri dituzten ikastaroetan, esate baterako Interred, Pueblos Hermanos, Euskal Herriko Unibertsitatea edo FUNDES. Azpimarratzekoa da Hegoa erakundeak antolatutako *Feminismoa eta lankidetzaren* jardunaldietako aholkularitza batzordean parte hartu dugula eta ekarpenak egin dizkiegula hiru foru aldundiek elkarrekin egindako Genero Prestakuntzako Planari.

Aipatzekoa da baita ere *Beijing + 15 Aurrera ala atzera goaz? Begirada bat Espainiako eta Europako lankidetzari* jardunaldietan parte hartu dugula. Ekitaldi hori Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundeak antolatu du Beijing + 15 gainbegiratzeko. Saio horietan prestatu ziren 2010eko martxoan New Yorken ospatu zen Beijing + 15 Nazio Batuen konferentzian Estatuak izango zuen parte-hartzea. Genero Taldean UPV/EHUren ere jardun dugu lanean *Generoa, GIB eta garapenerako lankidetzaren ikuspegi berriak, erronka berriak* mintegia antolatzeko.

Azkenik nabarmendu nahi dugu urtean zehar etengabeko aholkularitza eskaini diegula kide diren erakundeei genero berdintasunarekin lotutako gaiei buruz. •





Eragin Politikoa

Eragin Politikoaren alorrean, 2010ean zehar harreman egonkorrak izan ditugu Euskadiko lankidetzak diseinatzeko ardura duten eragileekin eta baita ere erki-degoan ordezkaritza duten alderdi politiko nagusiekin eta beste erakunde batzuekin, hala nola Euskal Fondoarekin (Lankidetzarako Tokiko Erakundeen Euskal Elkarte). Azken horri diru-laguntzen deialdietako irizpideak harmonizatzeko proposamen bat iritsarazi diogu, baita ere udalenzako formulario komun bat eta Garapenerako Laguntza Ofiziala kalkulatzeko beste proposamen bat.

Aldizkako bilerak egin ditugu Eusko Jaurlaritzarekin eta ordezkaritza egonkorra izan dugu Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseiluan. Bi espazio horietan posizionamenduak aurkeztu ditugu eta ekarpenak egin dizkiogu erakunde horren araudiari, aurretik Koordinakundearen adostu ondoren jakina. Halaber, Lankidetzako Euskal Legearen jarraipena egin dugu, betetze gradua eta epe labur-ertainean izango duen etorkizuna aztertze. Aipatzekoa da bestalde Eusko

Jaurlaritzarekin garatutako bi prozesu zehatzetan izan dugun parte-hartzea: urteroko lankidetzak planari egin dizkiogun ekarpenak, batetik, eta 2008-2011 Plan Zuzentzailea ebaluatzeko prozesuan izan dugun parte-hartzea, bestetik.

Bestalde, *Garapenerako politika publikoen koherentzia* izeneko artikulua onartu dugu Eredu dokumentuaren barnean; hortan biltzen dira Koordinakundearen oinarriko printzipioak eta posizionamenduak eragin politikoko lanarekin lotutako hainbat gairen inguruan. Lankidetzarako Euskal Kontseiluan aurkeztu dugu dokumentua eta euskal erakunde publikoetara ere zabaldu dugu. 2011ko udal eta foru hauteskundearen harira, Pobreziaren aurkako Ituna sinatzeko proposamena igorri diegu alderdi politikotako exekutibei eta hainbat bilera egin ditugu haiekin.

Beste alde batetik, sakon aztertu dugu 794 Errege Dekretua eta eragin politikoan eskaintzen dituen aukerak deialdien oinarrietan malgutasun eta harmonizazio handiago



lortzeko. Análisi hori hiru lurraldeetan egin dugu eta zegokien departamenduekin negoziatu dugu. Gainera, Pobretutako Herriekiko Justizia eta Solidaritate Gutuna betetzen ote den jarraitzen duen taldean parte hartu dugu eta eragin politikoko ekintzak garatu ditugu.

Lurralde mailan, berriz, Araban presentzia izan dugu Gasteizko Lankidetzaren Kontseiluan eta Eragin Politikoko Taldeak jarraipena egin dio Kontseilua- ren agendari. Parte hartu dugu baita ere Gasteizko Udalaren Plan Zuzentzaileari ekarpenak egiteko Kontseiluaren saio espezifikoetan. Gogor lan egin dugu Udalak garapenerako lankidetzara bideratzen duen partida ez murrizteko, eta besteak beste prentsaurreko bat antolatu dugu horretarako José Angel Cuerda hiriko alkate ohiarekin. Aipatzekoa da batez ere lorpen handia izan dela Gasteizko Udalak Pobreziaren aurkako Ituna sinatzea. Komunikazio eta Giza Mobilizazio eta Kanpaina taldeekin koordinatuta, Arabako komunikabide eta GGKEen arteko topaketaren aurtengo edizioan parte hartu dugu.

Bizkaian, udaletako zein aldundietako arduradunekin harreman estua izateaz gain, presentzia izan dugu Bilboko Lankidetzaren Kontseiluan eta jarraipena egin zaio bere agendari. Azpimarratzekoa da Pobreziaren aurkako Ituna sinatzeko egin den negoziaketa, nahiz eta 2010ean ez den onartzerik lortu. Komunikazio eta Giza Mobilizazio eta Kanpaina

lan-taldeekin koordinatuta, Bizkaiko komunikabide eta GGKEen arteko topaketan ere parte hartu dugu.

Gipuzkoan, azkenik, ordezkartza izan dugu Donostiako Lankidetzaren Kontseiluan eta aurrekoetan bezala, jarraipena egin diogu erakundearen agendari. Gainera, *Gipuzkoako lankidetzaren publikoaren azterketa 2008; lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat* ikerketa egin dugu eta prentsaurrekoan aurkeztu dugu. Bertan aztertu ditugu urte horretan Gipuzkoako erakunde publikoek gauzatu-tako nazioarteko lankidetzaren politika publikoen ezaugarriak. Azkenik, eta ikerketari jarraipena emateko, ekitaldi honetan 2009. urteari dagokion analisía egiten hasi gara. Aipatzekoa da halaber Donostiako Udalan Pobreziaren aurkako Ituna sinatzea lortu dela.

Estatu mailan, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundeko Koordinakunde Autonomikoen Taldean parte hartu dugu eta udal ordenantza eredu berriari ekarpenak egiteko prozesuan parte hartu dugu Espainiako Udal eta Probintzien Federazioarekin. •



Giza Mobilizazioa eta Kanpainak

Aurten ere aldaketa sozialaren aldeko borrokan diharduten beste eragile eta mugimendu batzuei buruzko gogoeta bultzatzen jarraitu dugu eta, gainera, sare eta plataforma ugari sustatutako ekimenetan parte hartu dugu. Prozedura bat garatu dugu beste plataforma sozial eta sare batzuekiko harremanetarako irizpideak, posizionamenduak eta protokoloa zehazteko, eta bide horretatik estrategiak eta aliantzak definitzeko: *Mewando* Palestinarekiko Elkartasun Sarea, Zero Pobrezia, Sahara, *Iniciativa Legislativa Popular*, *Quién debe a quién*, immigrazioa...

GGKEen erronkak eta desafioak mundu globalizatuan eztabaida prozesuarekin jarraitu dugu eta garrantzi berezia eman diegu GGKEek gaurko gizarteari begira egin dituzten proposamenei, mugimendu sozialekin dituzten harremanei eta mundu neoliberalaren alternatiba posibleei. Ateratako ondorioak Koordinakundearen espazioetan ezagutarazteaz gain, marko zabalagoetan ere partekatu ditugu, esaterako Mugarik Gabe elkarteak bultzatutako *Nazioarteko*

lankidetzaren erronkak Erdialdeko Amerikan, errealtatea eta perspektibak nazioarteko mintegian.

Mewando elkarteak Boikot, Desinbertsio eta Zigor kanpainaren inguruan planteatu dituen ekintzek ere garrantzi berezia izan dute. Sare horrek bultzatutako jarduerak babesten jarraitzeaz gain (bertan parte hartzen dute Mundubat, Bakea eta Elkartasuna, Bakea eta Duintasuna eta Biladi elkarteek), aurten aliantza egonkorak sortu ditugu hainbat sindikaturekin (UGT, CCOO, ELA, ESK, LAB, STEE-EILAS...) eta eragile eta kolektibo ugariarekin (Komite Internazionalistak, Askapena, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, IPES, *Red Estatal de Solidaridad con Palestina*...). Bestalde, Koordinakundearen barruan prestakuntza sustatu dugu eta Eragin Politikoko lantaldearekin batera posizionamenduak aurkeztu ditugu udal lankidetzaren kontseiluetan.

Mugimendu sozialekiko lankidetzaren ikuspegitik, Koordinakundeko kide diren GGKEen lana babestu dugu: beste erakunde eta espazio batzuekin formakuntzetan kolaboratu



(esaterako Munduko Txokoarekin); Bilboko Udal Lankidetzaren Kontseiluak antolatutako 8 barruti; 8 Milurteko Garapen Helburuak jardueran parte hartzea; EPA kanpaina; Bidezko Merkataritzaren Astea; Famili Nekazaritzaren Nazioarteko Urtea ezartzearen aldeko kanpaina; Audio eta Amurrioko elkartasunezko azokak, Giza Eskubideen Zinemaldia...



Aurreko urteetan bezala, Koordinakundeak zuzendutako mobilizazio sozialeko ekintzak antolatu ditugu; erakundeak aktiboki inplikatu dira eta beste eragile sozial batzuek ere bat egin dute. Zentzu horretan, Zero Pobrezia kanpaina babesten jarraitu dugu: sakon landu ditugu eduki eta ikuspegi berriak (desazkundea eta bizitze ona) Koordinakundeko barne eztabaida eta hausnartarako elementu gisa, eduki berriak eragin dituen, eta ekintzak edota beste kolektibo sozial batzuekiko harremanak sortzeko. Sentsibilizazio eta salaketa ekintza ugari egin dira kaleko ekintzen bidez eta ikastetxeetan ere bai. Bestelako prestakuntza eta hausnarketa bideak ere landu ditugu: hitzaldiak, zine-foruma, material hedaketa, tailerrak, topaketak... Azpimarratzekoa da parte-hartzea sustatzearen aldeko apustua egin dugula sare sozialen bidez, ziber-ekintzekin eta bestelako ekimen berritzaileen bitartez. Baina, oroz gain, kanpainaren inguruan sortu diren aliantzak nabarmendu nahi genituzke. Gipuzkoan dauden bost plataformez gain, loturak egin ditugu kolektibo berriekin eta lehen zeudenekin (Agle, Harresiak Apurtuz, Gasteiz trantsizioan, sindikatuak, Fede eta Justizia komunitate kristau elkarteak, Ekologistak Martxan, Desazkundea...). Beti ere koordinazioa mantenduz lurraldeen artean, beraien barruan eta Estatuan dauden gainerako plataforma eta sareekin.

Bestalde, zortzigarren urtez jarraian ospatu da Donostian *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldia eta aipatu behar da bertaratze eta parte-hartze maila handia izan dela.

Hausnarketa prozesu bat hasi dugu oinarri sozialen inplikazio maila eskasaren arrazoiak aztertzeko, nabaritu baitugu boluntario kopurua eta parte-hartze maila jaitسي egin direla. Era berean, lehen urratsak eman ditugu gizarte zibilari zuzendutako komunikazio eta sentsibilizazio estrategia bat egiteko, zeinak sistema patriarkal eta neoliberalaren eragin nagusiak azalduko baititu. Horretarako, lankidetzan jardun dugu Genero eta Komunikazioko lan-taldeekin.

Azkenik, hainbat prestakuntza ekintza egin ditugu desazkundeari buruz. Baita ere hainbat tailer egin ditugu sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza proiektu eraldatzaileak eraikitzeko, bestalde aztertu dugu nola ezarri genero ikuspegia proiektu horietan, komunikazioa arlo honetan eta sormena ere landu ditugu besteak beste. •



Komunikazioa

Komunikazio Arloan hainbat bidega-bekeria salatu ditugu eta pobrezia nahiz Ipar eta Hegoaren arteko desoreka eragiten duten arrazoiak ezagutzera eman ditugu, elkartasunaren kultura sustatzeko herritarren artean eta eraldaketa soziala lortzeko. Komunikabideen bitartez hedatu ditugu lan-taldeek eta Koordinakundearen parte-hartzea duten plataformek antolatutako jarduerak. Aipatzekoa da albiste, elkarrizketa edo iritzi artikulua ugari argitaratu direla antolatutako ekimen ugarien kariatara: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Pobreziaren aurkako Astea, Donostiako *Mundu zabala, errealitate, anitz* jardunaldia, Bilboko *8 barruti; 8 Milurteko Garapen Helburuak* eta *Gogor tiratu ez zaitzaten herrestatu* kaleko jarduerak, Amurrioko Elkartasun Azoka eta *Mewando* Palestinarekiko Elkartasun Sareak antolatutako beste hainbat (Palestinarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Eguna, Nakba Eguna...).

Koordinakundearen posizionamenduak ere zabaldu ditugu: Gasteizko Udalak lankidetzaren arloan egin dituen murrizketen berri eman dugu, Donostia eta Gasteizko udalek Pobreziaren aurkako Ituna sinatu dutela jakinarazi dugu, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak baloratu ditugu, Saharako Duintasunaren Kanpamenduan izandako gertakariak salatu ditugu eta Palestinako herriari laguntzaren inguruko informazioa zabaldu dugu Askatasunaren flotillak jasandako erasoaren ostean. Gainera, prentsurrekoan aurkeztu dugu Gipuzkoako lankidetzaren publikoaren analizatzaren duen azterlanaren edizio berria, 2008ari dagokiona.

Arabako Komunikazio Taldean amaiara eman diogu *Hegoaldeko Ikuspegiak* Komunikazio Solidarioa Lehiaketaren hirugarren edizioari, zeinak bi helburu nagusi baitauzka: batetik, gazteak elkartasunaren eta lankidetzaren esparrura erakartzea eta, bestetik, hedabideetako profesionalak herrialde



pobretuei buruzko mezuei ematen dieten tratamendua hobetzea. *La otra cara de Haití* irrati erreportajeak jaso du lehen saria eta *Tienes voz tienes voto* sentsibilizazio kanpainak bigarrena. Sari gisa, irabazleek lehen eskutik ezagutu dute medicusmundi Gipuzkoa GGKEak Ekuadorren garatzen duen proiektuetako bat. Bestalde, lan-taldeak onlineko argazki artxibategi bat egin du lankidetzari buruz. Ekimen horren helburua da hedabideei alternatiba bat eskaintzea *Hegoaldeari dagokionez* Irudi eta mezu kodearen ikuspegiatik zuzenak ez diren argazkiak argitaratu ez ditzaten. Arabako Irrati Taldeak, bi hilean behin, *Sintoniza tu Sur-Piztu zure Hegoa* saioko 4 programa emititu ditu Ola 19 irrati-etxean. Horietan hurbilketa kritiko bat eta hausnarketa egin ditu lankidetzarekin eta Arabako GGKEekin lotutako hainbat gairen inguruan, besteak beste.

Beste behin ere, hainbat topaketa antolatuta ditugu hiru lurraldeetan (eta gainerako lurraldeekin koordinatuta) GGKEen eta komunikabideen artean, kazetarietako harremanak estutzeko eta gai zehatzei buruzko informazioak, tratamenduak eta ikuspegi egokiak bideratzeko. Krisia dela-eta erakunde publikoek lankidetzarako aurrekontu partidetan egin dituzten murrizketak izan dira topaketen ardatz Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, aldiz, Pobreziaaren aurkako Astea eta Donostiako Zero Pobrezia Plataforma izan dituzte hizpide.

Aurreko urteetan bezala eta erakundeei komunikabideetara iristeko bidea errazteko, eguneratu egin ditugu elkartasun eta lankidetzaren gaiekin lotutako albisteak lantzeko interesa duten Euskadiko kazetarien datu baseak. Erakundeetako bozeramaileen jendaurreko komunikazio gaitasunak hobetzeko ere hainbat prestakuntza ikastaro eman dira Bizkaian eta Gipuzkoan. Era berean, Onda Vasca irratiarekin konektatu gara astean behin GGKEen jarduerak ezagutarazteko. Gainera, *Ahotsa*



aldizkariaren lau ale editatu ditugu eta lantutako gaiak 1.500 hartzaile baino gehiagorengana iritsi dira, hala nola ikastetxeetara, komunikabideetara, zentro zibikoetara, liburategietara edota instituzioetara. Koordinakundeko kide diren GGKE guztien direktorio bat ere argitaratu dugu eta eragin politikorako Eredu dokumentuaren edizioa egiten hasi gara.

Bestalde, eguneratuta mantendu dugu Koordinakundearen web orria eta astean behin buletin digitala igorri dugu informazio interesgarrikeri baterik. Presentzia izan dugu sare sozialetan, hala nola *Facebook* eta *Flicker*-en, eta baita ere *Vida solidaria* eta *Solidario/as* bezalako blog tematikoetan. Era berean, estraneta kudeatu dugu eta GGKEei aholkularitza eman diegu komunikazioarekin lotutako alderdiei buruz: nola egin komunikazio plan bat, nola jarri harremanetan kazetari interesgarriekin edo nola aplikatu *Hegoaldeari dagokionez* Irudi eta mezuen kodea. Azken gai horri buruz hitzaldi bat ere eman dugu Muszikoko Somorrostro Prestakuntza Zentroan. •





Idazkaritza teknikoak

Euskadi

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Zuzendaritzak arreta berezia eskaini die Bazarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakien jarraipen eta garapenari, Plan Estrategikotik eratorriak baitira. Gainera, laguntza eskaini zaio Gobernu Batzordeari bilerak, gai-zerrendak, aktak eta dokumentuak prestatzeko. Era berean, plangintza estrategiko berria osatzen eta GGKE guztietara hedatzen jardun da eta Urteko Plangintza Operatiborako dokumentua ere idatzi du, zeinaren jarraipena Plan Estrategikoko taldearekin batera egingo baitu.

Proiektuen kudeaketaren esparruan, tokiko erakundeekin sinatutako hitzarmenen jarraipena egin da eta ondoren onartutako 2010-2011 urteetarako lankidetzako hitzarmen berria aurkeztu zaio Eusko Jaurlaritzari. Horrela beraz, hitzarmen horretatik eratorritako zeregin ekonomikoak gauzatu dira, besteak beste, kontabilitatearen eta ordaintzen jarraipena, aurrekontuen prestakuntza zein jarraipena eta diruzaintza.

Bestalde, Zuzendaritzak koordinatutako bi Bazar Orokor ospatu dira. Lehenengoa,

Gasteizen egin da eta hartan, besteak beste, 2010-2013 Plan Estrategikoa onartu da, Ana María Arriola Lehendakari izendatu da eta Koordinakundean onartuak izan dira Mugarik Gabeko Hezkuntza eta Mugarik Gabeko Ekonomilariak erakundeak. Bigarrena, Bilbon egin da eta hainbat gai onartu dira: erakundeko genero diagnostikoa, eragin politikorako Eredu dokumentuaren *Garapenerako politika publikoen koherentzia* izeneko kapitulua eta *Agente, sare, erakunde eta gizarte mugimenduekiko harreman-eredua* testua. Bestalde, Álvaro Martín de Vega Koordinakundeko Lehendakariorde izendatu da.

Lanaren kudeaketari dagokionean, Bizkaiko Idazkaritza Teknikoaren arduradun berria aukeratu da eta Genero Arduradunaren ordezkoa ere bai, hark amatasun baimena hartu baitu. Gainera, aldiakako koordinaketa bilerak egin dira Lantalde Teknikoarekin.

Zuzendaritzak, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiarekin batera, lau prestakuntza saioz osatutako *Bizkaiko tamaina txikiko GGKEen errealitate eta perspektibei buruzko mintegia* antolatu du. Era berean, Haitiko

urtarrileko lurrikara dela eta, Haitiri laguntzeko GGKEen plataforman parte hartu du.

Bestalde, Zuzendaritzak zubi-lana egin du Espainiako GGKEen Koordinakundearekin. Horretarako, Koordinakunde Autonomikoe-tako Lantaldeen bi hilean behingo bileretan, Ohiko Batzar Orokorrean eta Autonomi Erkidegoen Koordinakunde VIII. Topaketan (Kanariar Irletan) parte hartu du. Lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan, bilera bat izan da Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioarekin, ekarpenak proposatzeko ordenantza ereduari buruz eta dokumentu horrek 794 Errege Dekretuarekin eta Irizpideak homogeneizatzeko gidarekin duen loturari buruz. Era berean, bi bilera antolatu dira autonomi erkidegoetako koordinakundearen zuzendaritzekin.

Marko instituzionalean, Zuzendaritzak hainbat bilera egin ditu Euskal Fondoarekin eta buru-belarri jardun du lanean Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzailea Ebaluatzeko Plana aurrera ateratzeko. Arabako Foru Aldundiaren Esku-hartze Sailko bileran parte hartu da eta bertan ezagutzera eman da 794 Errege Dekretua eta nola egokitzen zaion Foru Aldundiko legediari. Bestalde, *Fondo Cantabria Cooperativa* erakundeak antolatutako *I Jornada de cooperación descentralizada* ekimenean parte hartu du. Gainera, Zuzendaritzak lan saio bat izan du Nafarroako GGKEen Koordinakundeko Gobernu Batzordeko kideekin eta teknikariekin, Euskadin plangintza estrategikoaren arloan dagoen esperientzia partekatzeko eta horrela bertako Plan Estrategikoaren osaera babesteko.

Urtean zehar hainbat bilera egin dira Koordinakundearen sartzeari buruzko GGKEekin

eta erakundea hobeto ezagutu nahi izan duten beste batzuekin. Horien artean aipatzekoak dira hauek: Derandain, Garabide, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu, Anesvad, Oiko Credit eta Mardreselva. Nabarmentzekoak dira halaber hainbat enpresa edo erakunderekin eginiko bilerak, esaterako, Nafarroako Kutxa finantza erakundearekin diru-laguntzen programa lantzeko edota MAPFRE aseguru etxearekin. Horrez gain, BBK-k antolatu-tako *World café* ekitaldian parte hartu da bere Gizarte Ekintzaren ildo estrategikoak prestatzeko.

Prestakuntza atalean, Zuzendaritzak Irabazi asmorik gabeko erakundearen kudeaketa ekonomikorako eta diruzaintzarako programan parte hartu du eta *El Real Decreto 794/2010, una oportunidad para la armonización de la cooperación internacional española* izeneko ikastaroan ere bai.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

2010ean idazkaritza teknikoek eginiko lan garrantzitsuena Koordinakundeko kide diren GGKE-ak sendotzea eta laguntzea izan da. Beste hainbat jardueran egin ditugu ere: publikoari arreta eman, ekonomiaren eta lan-poltsaren kudeaketa, material eta argitalpenen hedapena, informazioaren kudeaketa, dohaintzak bideratzea eta lurraldeetako lan-taldeak koordinatzea, besteak beste.

Urtean zehar erakundeek aktiboki parte hartu dute Koordinakundearen. Araban 24 erakunde hartu dute parte Koordinakundeko espazioaren batean (lantaldeak, lurraldeko batzarrak...). Bizkaian 37 izan dira eta Gipuzkoan, berriz, 31 inguru.

Lurraldeka, aipatzekoa da Arabako Idazkaritza Teknikoak Foru Aldundiko Esku-hartze Sailarekin eragin politikoaren arloan egin duen lana. Hainbat bilera egin ondoren Ahaldu Nagusiarekin eta Ogasun Sailburuarekin, GGKEekin eta Esku-hartze



Gure ekimenak



Saileko ordezkariekin bildu ginen, elkar eza-
gutzeko batetik eta proiektuak edo justifika-
zio ekonomikoak aurkeztean bi alderdietan
sortzen diren zailtasunak partekatze-
ko batetik. Horrez gain, *Lankidetzaren argazkietan*
jaso argazkilaritza lehiaketaren bosgarren
ekitaldiko epaimahaian parte hartu dugu,
hainbat bilera egin ditugu Araban egoitza
berria duten GGKEekin (esaterako, Bakerako
Lankidetzaren Batzarra) eta baita ere beren or-
dezkariek aldatu dituzten lurraldeko erakun-
deekin (Itaka Escolapios, Euskadiko Elkarbi-
dea, Adsis Fundazioa, Alboan eta ADRA) gure
laguntasuna eskaintzeko. Gainera, harre-
man egonkorrak izan ditugu hainbat kolekti-
bo eta erakunderekin (adibidez ERDU).
Gasteizko Udalak, horretarako lagatzen di-
gun areto batean, kide diren GGKEei beren
materialak biltegitratzeko espazioa uzten
jarrailu diegu. Materialak mailegatu dizkiegu
ere erakundeei 16 kasutan. Bestalde, GGKEek

aurreikusitako jarduerak biltzen dituen egu-
tegi bat osatu dugu urte hasieran, plangin-
tza koordinatu ahal izateko. Urte amaieran
Ordezkaritzari buruzko gogoeta bat egin
dugu eta eskaintako zerbitzuak aztertu di-
tugu. Azkenik, aipatzekoa da Arabako egoitza
Simone de Beauvoir Elkarte Etxean kokatuta
dagoela, beraz erakunde ugari partekatzen
duten espazio batean parte hartu dugu.

Bizkaian aipatzekoa da Euskal Herriko Uni-
bertsitateko Gizarte Lan Eskolaren mahai in-
formatibo batean parte hartu dugula, eza-
gutzero emateko zeintzuk diren boluntario
gisa jarduteko edo herrialde pobretuetan
praktikak egiteko dauden aukerak. Halaber,
kooperante batek Santurtziko institutu ba-
tean hitzaldi bat emateko kudeaketa egin
dugu. 2010ean dokumentazio zentroan dauz-
kagun materialak katalogatzen jarraitu dugu:
liburuak, dokumentuak, ikus-entzunezkoak,
monografikoak, memoriak, txostenak, aldizka-
ko argitalpenak, garapenerako hezkuntzako
materialak... Gaur egun lankidetzaren espa-
rruko 800 material inguru daude sailkatuta
dokumentazio zentro honetan. Aipatzekoa da
baita ere *GGKEen erronkak eta desafioak*
mundu globalizatuaren eztabaida espazioa-
ren beste saio bat koordinatu dugula. Azke-
nik, esan beharra dugu Bilboko egoitza tokiz
aldatu dela, 2010etik Bizkaiko Ordezkaritzak
bulego berria baitauka Urkixo Zumarkalean.

Gipuzkoan harreman estua mantendu dugu
probintziako gazte-informazioko zerbitzua-
rekin eta boluntariotzari buruzko txosten
bat zabaldu dugu. Horrez gain, Hegoaldean
kolaboratzeko aukerei eta boluntariotza mota
desberdinei buruzko hitzaldi informatibo
bana eman dugu Donostian eta Bergaran.
Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoak aktiboki
parte hartu du Koordinakundeak Donostian
urtero ospatzen duen *Mundu zabala, erreali-
tate anitz* sentsibilizazio jardunaldiaren
zortzigarren ekitaldiko antolakuntzan. GGKE
kideez gain, kanpoko beste hainbat erakun-
dek ere parte hartu dute aurten, hala nola
Banda bat, Mujeres del Mundo Unidas, SOS
Arrazakeria, Zero Pobrezia Plataforma, bidez-
ko merkataritzaren partzuergo eta FIARE.

Idazkaritza teknikoetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako *Lagundu nahi al diozu Hegoaldeari? Nola parte hartu* txosten informatiboak eguneratu ditugu garapenerako lankidetzan interesa duten pertsonentzat. Txosten horretan aurki daitezke egoitzan edo herrialde pobretuetan boluntario lanean jarduteko dauden aukerak edota eskura daitekeen prestakuntza-eskaintza eta baita ere eremuan profesionalki sartu nahi luketentzako bekak, praktikak eta programak.

Lurraldeetako batzarretarako deialdia egitea izan da idazkaritza teknikoen beste eginkizunetako bat, erakundeen lan koordinatua hobetzea helburu izanik. Araban 11 lurralde batzar eta ezohiko batzar bat egin dira eta Gipuzkoan 9, bikasuetan hilean behin. Bizkaiko kasuan, berriz, bilerak bi edo hiru hilean behin egin dira eta ondorioz, 3 topaketa antolatu dira guztira.

Gainera, idazkaritza teknikoetan GGKEei eta partikularrei lagundu diegu Hegoaldeko herrialdeak bisitatzeke moduei buruzko etengabeko informazioa eskainiz eta informazio orokorragoa ere bai lankidetzari, deialdiei, diru-laguntzei, lan eskaintzei, boluntariotzari, prestakuntzari eta material informatikoaren zein bibliografikoaren maileguei buruz. GGKEen informazio bilketa ere koordinatu dugu, Haitiko lurrikararen edo Pakistaneko uholdeen kasuetan besteak beste.

Prestakuntzaren atalean, idazkaritza teknikoetan koordinatu ditugu erakundeen prestakuntza eskaerak eta eman diren ikastaroak martxan jartzan lagundu dugu, esate baterako, Gipuzkoan eta Bizkaian eskainitako *Generoa eta garapenerako hezkuntza*.

Beste alde batetik, kasu batzuetan bilerak egin ditugu Koordinakundeari eta kide diren GGKEei lagundu nahi dieten edota Koordinakundeetan sartu nahi duten erakundeekin. Araban Amaru eta Bidaietiko erakundeekin egin ditugu batza-




rrak, Bizkaian DYA eta Fundación Arizmendiartekin eta Gipuzkoan, berriz, Egoaizia, Mujeres del Mundo Unidas, Asociación Humanitaria África Avenir, Pausu Media eta Sociedad Vasca de Cuidados Paliativos-ekin. Beste kasu batzuetan, bilerak edo topaketak antolatu ditugu Euskadin bisitan egon diren Hegoaldeko erakundeekin, loturak estutzeko eta indarrak batzeko. Bizkaian aipatzekoak dira ECAP Koordinakundea (Guatemala), El Caracol (Mexiko) eta Peruko Fray Bartolomé de Las Casas Institutua, besteak beste. Gipuzkoan, berriz, Proesa (El Salvador) erakundea izan da bisitan.

Gainera, idazkaritza teknikoetan partikular, elkarte, erakunde, kolektibo eta eskoletatik iritsi zaizkigun eskaera eta kontsultei erantzun diegu. 2010ean Arabako ordezkarietan, 770 bat eskaera izan dira, Bizkaian 920 baino gehiago eta Gipuzkoan 850 kontsulta baino gehiago. Hurrengo grafikoan ikus daitezkeen bezala, posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea eta jarraian datoz telefonoa eta bisita pertsonalak:




Gure ekimenak




Koordinakundeko kide diren GGKEak dira informazioa lortzeko Koordinakundera gehien jotzen dutenak. Atzetik dituzte pertso-

na partikularrak eta kanpoko erakundeak edo kolektiboak, grafiko honetan ikus daitekeen bezala:




Informazio eskatzaileak sexuka bereiziz gero, ondoriozta dezakegu kontsulta gehienak

emakumeek eginak direla, jarraian ageri den bezala:



Koordinakundea lankidetzaren esparruko erreferente bezala ikusten duten pertsonen eskaintzen diren zerbitzuei buruzko informazioa eskatu dute gehienbat. Ondoren, Koordinakundeko kide ez diren kolektiboei buruzko

informazioa eskatzen da gehien eta hirugarren tokian lankidetzaren esparruko gai espezifikoari buruzko aholkularitza, grafiko hone-tan egiaztatu daitekeen bezala:



Amaitzeko, nabarmentzekoa da Gipuzkoan eta Araban lan handia egin dugula GGKEak elkar hobeto ezagutzeko eta erakundeen arteko lankidetzaz sustatzeko eskualde nahiz kuadriletan gauzatzen diren jardueretan. Horrela bada, GGKEen presentzia indartzeko lan espezifikoak egin dugu bi lurraldeetan, hiriburuetan zentralizatu gabe. Besteak beste, lankidetzaren esparruan diharduten erakundeekin kontaktuak egin ditugu, Hegoaldeko errealitatei buruzko sentsibilizazio ekintzak egin ditugu eta jarduerak koordinatu ditugu. Aipatzekoak dira ondokoak:

- Arabaren kasuan, lorpenik handiena probintziako mapeoaren azken dokumentua osatzea izan da, bertan jasotzen direlarik Arabako eskualdeetako harreman instituzional nagusiak, sentsibilizazio jarduerak egiteko espazio desberdinak, eragileak eta GGKEek lurraldean egiten duten lana. Dokumentu horretatik eratorri dira Araban jarduteko lehen estrategiak. Amurrion Elkartasun Azokan parte hartu dugu Zero Pobrezia kanpainaren barruan eta Laudion, Pobreziaren aurkako Astearren mar-koan, tailerrak egin ditugu ikastetxeetan

eta Elkartasun Azokan. Era berean, kanpaina hori Arabako hainbat komunikabidetan hedatu dugu elkarriketen edo artikuluen bidez. Jarduera horiek denek Giza Mobilizazio eta Kanpaina Taldearen laguntza izan dute, eta aldi berean koordinazio, gogoeta eta elkarlan espazioak sortu dira.

GGKEei kanpoko jarduera batzuetan parte hartzen ere lagundu diegu. Amurrioko *Euskal Eskola Publikoaren Jaian* hiru GGKEren parte hartzea koordinatu dugu eta, gainera, Adinekoentzako Gasteizko Koroatzeko Kultur Elkartean tailer baten antolakuntzan parte hartu dugu. Adurtzako lanbide zentroarekiko kolaborazioa koordinatu dugu bi erakunderekin, egoitzan bertan egiten den lana bultzatzeko eta harremanetan jarri genituen bi GGKE Aramaioko Udalarekin, Gabonetan jostailu bilketari buruzko kanpaina bat egiteko.

- Gipuzkoan nabarmentzekoa da probintziako GGKEekin koordinatuta lan egin dugula jarduerak lurralde osoan bultzatzeko. Etengabe jardun dugu lanean kanpora begira eta horretarako kaleko jarduerak edo sentsibilizazio ekintzak garatu dituzten plataformetan parte hartu dugu, baina, gainera, prozesu interesgarriak jarri ditugu martxan, esaterako, posizionamendu komunei buruzko hausnarketak, argumentario bat idaztea, egungo testuingurua aztertzea, nazioarteko foroetan parte hartzea, etab. Nobedade gisa, aurten Donostiako Zero Pobrezia Plataformak Aste Nagusiko piraten abordaiari parte hartu du eta, Euskadiren Kanpo Zorra Abolitzearen aldeko

Sarearekin koordinatuta, kaleko salaketa jarduera bat antolatu du gogora ekartzeko hiru urte igaro direla Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren 14/2007 Legea sinatu zenetik eta hiru urte hauetan ez dela legea bete. Azpimarratzekoa da Zero Pobrezia kanpainak bost plataforma dauzkala martxan (Eibar, Deba-goiena, Irun, Donostia eta Zarauzko elkartasun taldea). 56 erakunde inguru lanean ari dira helburu berbera lortzeko. Bestalde, Zero Pobrezia kanpainaren materiala banatu dugu Gipuzkoa osoan eta horretarako Giza Mobilizazio eta Kanpaina Taldearen laguntza izan dugu.

Bestalde, Eragin Politikorako Lantaldeari lagundu diegu Gipuzkoako lankidetzaren deszentralizatuari buruz egin duen bigarren azterketa osatzen. Oraingoan 2008. urtea aztertu dugu eta 2009ko azterlana egiteko datuak biltzen ere hasi gara. Hala ere, Gipuzkoako GGKEen *Garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako baliabideen katalogoa* osatu dugu, unitate didaktikoekin eta bestelako baliabideekin (erakusketak, bideoak, tailerrak...). Liburu honekin elkartasunari buruzko hainbat gai landu ahal izango dira.

Azkenik, Koordinakundeak euskararen erabilera bultzatzeko duen apustua dela eta Gipuzkoako eta Arabako ordezkariak *Guk zerbitzua euskaraz* eta *Euskararen bidean* mailei dagozkien *Bai Euskarari* ziurtagiriak dauzkate hurrenez hurren. •





Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: **Ana María Arriola**, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. Lehendakariordetza: **Álvaro Martín de Vega**, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Idazkaritza: **Ruth Fernández**, UNESCO Etxea. Diruzaintza: **María del Mar Magallón**, ALBOAN. Arabako Ordezkarria: **Francisco Izquierdo**, Elizbarrutietako Misoiak. Bizkaiko Ordezkarria: **Jaime Bernar**, Zabalketa. Gipuzkoako Ordezkarria: **Mertxe Digón**, Interred Euskal Herria. Batzordekidea: **Eduardo García Langarica**, medicusmundi Araba. Batzordekidea: **Ana Moko-roa**, Elan Euskadi. Batzordekidea: **Sonia González**, Bakea eta Elkartasuna.

Lan-taldeak

Generoa

Amaia Iguarán, Ayuda Mas. **Joana López de Guereñu**, Bakea eta Duintasuna. **Beatriz de Lucas**, Mundubat. **Isabel Uría**, SEADen Lagunen Elkarte Bizkaia. **María Bravo**, Bakea eta Elkartasuna. **María Viadero**, Mugarik Gabe. **Mila Domínguez**, ADECO. **Iker del Río**, Bizilur. **Arkaitz López** boluntarioa izan da taldean.

Eragin politikoa

Euskadi

Nerea Basterra, Intermón Oxfam. **Esther Calvo**, PROCLADE YANAPAY. **Regina Zalbidea**, FISC Cooperación y Desarrollo. **Jesús Ochoa**, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Cristina Gonzalo**, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. **Koldo Muro**, Cáritas Gipuzkoa. **Puri Pérez**, Mugarik Gabe. **Olga García**, Mugarik Gabeko Hezkuntza. **Iñaki Orube**, Mugen Gaietik. **Eduardo Sánchez**, Emaús Gizarte Fundazioa. **Amaia Iguarán**, Ayuda Mas. **Jaime Bernar**, Zabalketa. **Nacho Eguizabal** eta **Alicia Alemán**, ALBOAN. **Belén Citoler**, Mundubat. **Álvaro Martín de Vega**, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. **Almudena Martín**, Euskadiko Elkarbidea. **Javier Garijo**, Euskadi-Cuba. **Jaione San Sebastián**, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Mónica Hernando**, Unesco Etxea.

Araba

Luis Royero, Asociación Africanista Manuel Iradier. **Eduardo García Langarica**, medicusmundi Araba. **Alberto Ce-reijo**, Setem Hego Haizea. **Ainhoa Oceja**, Save the Children. **Irene Martínez**, Serso San Viator de Euskalherria.

Bizkaia

Alicia Alemán, ALBOAN. **Nerea Basterra**, Intermón Oxfam. **María Arrieta**, Gazteak eta Garapena. **Regina Zal-bidea**, FISC Cooperación y Desarrollo. **Laura Iruretagoyena**, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Belén Citoler**, Mundubat. **Jaime Bernar**, Zabalketa. **Cristina Gonzalo**, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. **Amaia Iguarán**, Ayuda Mas. **Puri Pérez**, Mugarik Gabe. **Olga García**, Mugarik Gabeko Hezkuntza. **Álvaro Martín de Vega**, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. **Javier Garijo**, Euskadi-Cuba. **Jaione San Sebastián**, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Mónica Hernando**, Unesco Etxea. **Ricardo Fernández**, medicusmundi Bizkaia.

Gipuzkoa

Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. [Jesús Ochoa](#), Mugarik Gabeko Ekonomilariak. [Iñaki Orube](#), Mugen Gaietik. [Iñigo Odriozola](#), TAU Fundazioa. [Fernando Vaquerizo](#), Mundubat. [Isabel Goenaga](#), ADRA. [Eduardo Sánchez](#), Emaús Gizarte Fundazioa. [Gonzalo Aranguren](#), PROSALUS.

Giza Mobilizazioa eta Kanpainak

Araba

[Arantza Moya](#), ADRA. [Aitziber Marín](#), Adsis Fundazioa. [Kepa Torrijos](#), Bakea eta Elkartasuna. [Idoia Pérez de Unzueta](#), Mundubat. [Lorena Fernández](#), SEADen Lagunen Elkartea Araba. [Laura Lorenzo](#), Munduko Landa-gunea. [Francisco Izquierdo](#), Elizbarrutietako Misiok. [Eva Silván](#), Save the Children. [Beatriz Asenjo](#), Serso San Viator de Euskalherria/Gizakien Lurra/Save the Children. [Lut Vansant](#), Setem Hego Haizea. [Fátima Uri-barren](#), Solive. Olga Serrano, Gizakien Lurra.

Horrez gain Pobreziaren aurkako Astean honako hauek bat egin dute aktiboki: [Raquel García](#), ALBOAN; [Maialen Arce](#), Euskadiko Elkarbidea; [Marian Uriarte](#), medicusmundi Araba eta [Deyanira Rodríguez](#), Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna.

Bizkaia

[Marta García](#), ADRA. [María Lezáun](#), ALBOAN. [Jaione San Sebastián](#), Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. [Raquel Calvo](#), Bateginez. [Álvaro Peña](#) eta [Nerea Freijo](#), Mugarik Gabeko Ekonomilariak. [Olga García](#), Mugarik Gabeko Hezkuntza. [Paciencia Okon](#), Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. [Mónica Oyarzabal](#) eta [Toño Sanda](#), Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. [Itziar Ereño](#), Interred Euskal Herria. [Francesca Zambruni](#) eta [Sofía Marroquín](#), Intermón Oxfam. [Teresa Reyزابال](#), Munduko Medikuek. [Maite Ezquerro](#), Mugarik Gabe. [Jorge Lago](#), Bakea eta Duintasuna.

Gipuzkoa

[Maitane Igartua](#), MSH Mundu Solidarioa Helburu. [Ane García](#), Behar Bidasoa. [Maider Gorriti](#), Cáritas Gipuzkoa. [Ana Mokoroa](#), Elan Euskadi. [Lourdes Guruceta](#), FISC-Nazioarteko Solidaritarako Fundazioa Mariaren Lagundia. [Eduarne Irazusta](#), Haurralde Fundazioa. [Arantza Garbizu](#), medicusmundi Gipuzkoa. [Koté Urbietta](#), Mugen Gaietik. [Laura Laborra](#), PROCLADE YANAPAY. [Josean Etxeberria](#), PROSALUS. [Pilar Oronoz](#), Zabalketa. [Iñigo Eguren](#), Calcuta Ondoan. [Elena González](#), Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI). Gipuzkoan dauden Zero Pobreziaren 5 plataforma ez dira hemen sartzen.

Gainera *Mundu zabala, errealitate anitz* ekimenaren antolaketan honako hauek parte hartu dute ere: [Aloña Braceras](#), ALBOAN; [Jesús Ochoa](#), Mugarik Gabeko Ekonomilariak; [Maider Sagrado](#), Emaús Gizarte Fundazioa; [Ainitze Zabala](#), Interred Euskal Herria; [David Pinilla](#), Bakea eta Elkartasuna; [Idoia Azpilicueta](#), PROYDE-PROEGA; [Haritz Azkue](#), Setem Hego Haizea; [Isabel Portillo](#), SODEPAZ Euskadi eta [Iñigo Odriozola](#), TAU Fundazioa.

Komunikazioa

[Unai Kontxa](#), Munduko Landagunea. [Deyanira Rodríguez](#), Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. [Aitziber Marín](#), Adsis Fundazioa. [Ángel Ipiña](#), Serso San Viator de Euskalherria. [Alfonso Roncero](#), Gizakien Lurra.

Irratia

[Maite Garmendia](#), Setem Hego Haizea. [Marilo Ruiz de Galarreta](#), SEADen Lagunen Elkartea Araba. [Olga Serrano](#), Gizakien Lurra. [Arantza Moya](#), [Arantza Villar](#), [Idoia Landaluce](#), [Zuriñe Rodríguez](#) eta [Idoia Pérez de Unzueta](#), Mundubat.

Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

[Itziar Hernández](#), [Lara González](#), [Dominic Wyatt](#) eta [Ana María Arriola](#).

Plan Estrategikoaren Taldea

Kideek ez dituzte GGKEak ordezkatzeko, Koordinakundeko estamentuak baizik.

[Silvia de Gregorio](#) langileen eta Bizkaiko Ordezkaritzaren izenean, [Jesús Ochoa](#) Gipuzkoako Ordezkaritzaren partez eta [Natxo Ribechini](#) Koordinakundeko Zuzendaritza.

Erakundeetan partaidetza

Eusko Jaurlaritzarako Aholku-Batzordea

[Eduardo Sánchez](#), Emaús Gizarte Fundazioa. [Nacho Eguizabal](#), ALBOAN. [Sonia González](#), Bakea eta Elkartasuna. [Almudena Martín](#), Euskadiko Elkarbidea. [Josu Perales](#), Mundubat. [Nerea Basterra](#), Intermón Oxfam. [Cristina Gonzalo](#), Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. [Ana María Arriola](#), Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. [María Viadero](#), Mugarik Gabe.

Bilboko Lankidetzako Batzordea

María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Ricardo Fernández, medicumundi Bizkaia. Belen Citoler, Mundubat.

Vitoria-Gasteizko Garapen Lankidetzarako Batzordea

Francisco Izquierdo, Elizbarrutietako Misiokak.

Donostiako Udalako Lankidetzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako Udal Batzordea

Fernando Vaquerizo, Mundubat.

Talde Teknikoa

Natxo Ribechini, Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritza. Aurora Hermosilla, Janire Sáenz de Buruaga (amatasun baimenagatik ordezkapena) eta Olatz Domínguez, Arabako Idazkaritza Teknikoa. Ana Gómez eta Usune Zuazo (eszedentziagatik ordezkapena), Bizkaiko Idazkaritza Teknikoa. Erika Erkizia eta Julia Laborra, Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoa. Silvia de Gregorio eta Ainara Azaola (amatasun baimenagatik ordezkapena), Genero Arduraduna. Natalia Rodríguez, Eragin Politikoko Arduraduna. Idoia Aldama, Giza Mobilizazioa eta Kanpainak Arduraduna. Jon González, Komunikazio Arduraduna.

GGKEak

Acción Verapaz Euskadi
Acnur Euskal Batzordea
ADECO Amistad, Desarrollo
y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Amigos del Tercer Mundo
Asociación Africanista Manuel Iradier
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna
Bakerako Lankidetzaz Batzarra
Bateginez
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutiko Caritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Caritas Gipuzkoa
Compartir
Edex
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Misiokak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskadiko Elkarbidea
Euskal Herriko Mugarik Gabeko
Ingeniaritza
FISC Cooperación y Desarrollo

FISC-Nazioarteko Solidaritzarako
Fundazioa Mariaren Lagundia
FUNDESO Garapen Iraunkorreko
Fundazioa
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren
Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-
Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Intermón Oxfam
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Izan Elkartea
Justicia y Paz
Kainabera
Leonekin
Manos Unidas
Medicumundi Araba
Medicumundi Bizkaia
Medicumundi Gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugarik Gabeko Hezkuntza

Mugen Gaietarik
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikuek
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko
Elkartea
Oskar Romero Solidaritza
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación
y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskalherria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi
Solidaridad Internacional-
Nazioarteko Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
SOTERMUN
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
Zabalketa
Zubiak Eginez

Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaziguke: lankideak eta boluntarioak diren emakumezkoak eta gizonezkoak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

5. Kontu argiak

Sarrerak	Egindakoa (€)	%
Kuotak	35.006	7,9
*Diru-laguntza publikoak	380.747	86,3
Jarduerengatik sarrerak	5.234	1,2
Aparteko sarrerak	20.000	4,5
Guztira	440.987	100

Gastuak	Egindakoa (€)	%
Bulegoko materiala	8.633	2,0
Langileak	324.795	73,7
Dietak eta garraioak	12.370	2,8
Kontratazioak	64.988	14,7
Funtzionamendua	29.877	6,8
Guztira	440.664	100,0

*Diru-laguntza publikoak (€)	%
Eusko Jaurlaritza	199.000 52
Arabako Foru Aldundia	30.000 8
Bizkaiko Foru Aldundia	33.937 9
Gipuzkoako Foru Aldundia	33.600 9
Bilboko Udala	30.000 8
Donostiako Udala	31.000 8
Vitoria-Gasteizko Udala	23.210 6
Guztira	380.747 100

Emitza	323 €
---------------	--------------